

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure zerbitzua gazteei eta tabernei helarazteko hainbat kanal erabiliko ditugu, helburua bezeroek produktua ondo ezagutzea eta erraz erabiltzea baita.

Lehenik eta behin, jendeak gure proiektuaren berri izateko, sare sozialak erabiliko ditugu, batez ere Instagram eta TikTok, gazteen artean ohikoenak direlako. Bertan aplikazioaren funtzionamendua, prezioak eta zein tabernek duten gure zerbitzua azalduko dugu.

Horrez gain, gure zerbitzua kontratatzen duten tabernetan kartelak eta pegatinak jarriko ditugu, aplikazioa deskargatzeko QR kodearekin.



Banaketa-kanalei dagokienez, gure produktua aplikazio bat denez, banaketa nagusia Play Store eta App Store bezalako aplikazioetatik egingo da. Gazteek bertatik deskargatuko dute dohainik. Salmenta-kanalelara pasatuta, bi bezero mota ditugunez, bi bide nagusi izango ditugu. Tabernei zerbitzua zuzeneko harremanaren bidez salduko diegu, informazioa emanez, prezioak azalduz eta zalantzak argituz. Gazteen kasuan, salmenta aplikazioaren barruan gertatuko da; abesti bakoitza aukeratzean ordainketa zuzenean egingo dute.

Kanalaren lehen fasea pertzepzioa da; jendeak gure proiektuaren berri izaten duen momentua, sare sozialen eta tabernetako kartelen bitartez.

Bigarren fasea erosketarena da; tabernek gure zerbitzua kontratatuko eta gazteek aplikazioaren bitartez aukeratzen dituzten abestiak erostiko dituzte. Hurrengo fasea entrega da, zerbitzua aplikazioaren bidez berehala eskuratuko dute tabernek, gure sistemara konektatzean.

Azkenik, salmenta ondorengo fasean, tabernei laguntza eskainiko diegu, arazo teknikoak edo zalantzak konpontzeko, eta gazteei beren iritzia emateko aukera emango diegu aplikazioan, aplikazioko esperientzia hobetzeko.

Azken batean, gure kanal nagusiak sare sozialak, tabernetako material bisuala eta aurrez aurreko azalpenak dira bezeroekin harremanetan jartzeko, eta aplikazioa bera da gure balio-proposamena banatzeko biderik garrantzitsuena, bai gazteentzat bai tabernentzat.